2.° URTEA

IBAIZABAL

55n GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Illbeltza-ren 18n

Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1903-ko Urtarrilla-ren 18n

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.° derecha.

Sasoi onean

Azkanengo gueian esaten euskun Zarauzko Elizondok badireala euskaldunak esaten dabenak: «Sasoi onean asi dira IBAIZABAL ta bere lagunak euskerea biztu nairik; albetan edo agonian dagoan gaissoa zailla da sendatzen.»

Albetan dago euskerea eun urte baiño gueiago, guk dakigundik, bada Larramendi-ren aldian orisse esaten eben erdaldunak eta euskaldunen artean eukeezan lagun ta adiskideak, eta...: ondiño bizi da.

Sendo dagoala ezin guiñaike esan arean: bada eskoletatik, erri-echeetatik, *señorito* chocholoen artetik, eta oraiñ leku batzuetan elizetatik be, aterata dago. Elizondok aitaturiko euskaldun kirtenak esan barik be, gueieguian dakigu, obe dala gacha sartu baño lenago artutea bear direan neurriak; anchiña asi zan sartzen guch ori, ezeben ordukoak sendabiderik artu, ta ¿zer eguingo jako? IBAIZABAL-ek eta bere lagunak eztaukee errurik berandu jaioaz; ezegoan euren eskuan ori.

Eta makalik aurkitu dogula ta ¿bertan bera illten ichi, ezetariko aleguiñik eguin barik? Ori esan edo eguiten dabena, edo kirten nagusienetarikoa da, edo eztau maite gaissorik dagoana; bietatik bat. Baiña kirtenkeri gueieguia da ori; arazo edo negozio bat okertuten baiake ¿eztabe eguiten eurak ezer zuzentzeko? Echeko bat gaissotu ezkero ¿sendalari edo medikuari deitu barik, eta ezer eguin barik isten deutse illten? Ez arean; bada orduan bigarrena da eguia, au da, maitetasunik eza.

Beraz, orretarikoai esan lekioe: «Zu, guizon uztel bat zara, zuregan sinisterik edo zure konfiantzarik ezin iñok euki leike, bada eztozu maite maitetzeko lotuta zagozan gauzea; noberen Erria ta noberen Erriko berbetea ta noberen Erriko legue ta gauza guztiak, Jainkoaren kontrakoak izan ezik, bere gurasoak eta bere anaiak leguez maite izan bear dauz guizonak, zintzoa izateko.»

Eta gu sasoi onean asi bagara euskerearen alde, eurak be sasoi ederrean asi dira gaztelar biurtuten. ¡Albetan dagoala gure euskerea! eta gaztelarrena ¿zelan dago bada? Zitzak edo zerrenak biotz biotzean jota, gaztelar erria bera dagoan leguez.

Ameriketatik gaztelania botako dabe denporaz, edo galduko da; bada ara doaz alde guztietatik bizimoduaren billa Alemaniatik, Poloniatik, Italiatik, eta ainbat lekuetatik, Erri oneetako semeak eztabee isten euren izkuntzea, an daukez euren albistariak; gorde eguiten dabe ta irakatsi euren umeai. Uri osoak dagoz Ameriketan gaztelar eguiten eztana, aleman edo poloniar edo italiano edo frantzes baiño; ta uri oneek eta errialde oneek daukee aberaztasun da gobiernu ta bizitasun gueiago, gaztelarrena baiño enda edo arraza indartsuagoak eta biziago ak direalako aurrerapen guztietarako. Gaztelarrak aldi baten jaubeturiko Errepublika aretan eratu edo formauko dira denporaz guizatalde andiak, gaztelarren endakoak eztireanak eta euren jator-erriko izkuntzea ta izakerea gorde dabeenak, eta oneek iruntzi edo estalduko dabeez gaztelarrak an ichiriko azi argal eta eroak.

Gaur egunean ondiño onechek dira aguintzen dabeenak Errialde aretan ta eurek daukee ipiñita *Lenguaje ofiicial*-a: gaztelako odola, gaztelako arimea dago ondiño, eta ¿zer ikusten dogu? Beti matrakea, beti machinadea edo erreboluziñoa, beti gobiernurik eza; aurretarasunik baperez, atzeratasuna beti. Alan iraungo dabe, gueroago charrago Erri arek, esan doguzan enda edo arrazakoak gueitu arte, eta onek arima barri bat Erri arei ezarri arte euren izkuntzeaz ta izkuntzeaz batera euren izakereaz. Orduanche gaztetuko dira ta asiko dira zerbait izaten, eta ordutik aurrera *Historiak* esango dau Ameriketan gaztelarrez berba eguin zala iñoz.

Españan bertan be ¿eztozue ikusten gueroago ta makalago doiala? ¿Nun daukazuez beguiak ez ikusteko zer jazoten dan Katalunyan, Balearres-en, Valencia-n, Galician, eta Euskalerrian bertan? ¿Nun dago aurrerreratasun gueiago, nun asten da ume gueien, nun dago bizi gueien, nun da indar gueien, nun dira enda eda arraza sendoenak? Gaztelarrez guichien eguiten dan tokietan; gaztelania guichien maite dabeen errietan. ¿Eztau ezer esaten onek ala?

Gaztela baiño andiagoa zan Erroma, ta Euskalerria etzan izango orduan gaur baiño asko sendoagoa; orraitiño Erroma ill zan anchiña, ta gure Erria zutunik dago.

Biar egunean Gaztelerriari beste ainbeste jazo lekio, eta ez bakarrik *lekio*, jazoko jakola esan daikegu ikusi ezkero biotz uztelduaz, zein da zubill zaar bat zerrenak barrutik auts eguiñik daukana.

Bai zoaze, euskaldun atsituok, zoaze Gaztelarrakana; ichi eizue Aitor--en echeko tellape garbi ta ondradua, ta sartu zaiteze mundu guztiak urruinduten daben echera, zuek gora bera Jaunak gura dabena jazoko da ta.

¡Sasoi onean asi gareala!... ¡Sasoi onean gogoratu jatzue zeuen buruak gaztelar eguitea! Eche sendo bat autatu bazendue, baiña ¿ori? ¿Ormak okertuta, arrakalatuta, teillak ausita, zubillak auts eguinda, ta guztia erdi jausita ta laster jausteko dagoana? Gu baiño burlagarriagoak zaree benetan.

BLOA.

IMAITETASUNA!

Ama bat orchen dago
betia zotiñez,
asnase estuakiñ
sosega eziñez;
beguitikan malkoa
dariola ziñez,
zirazkachoan aurra
daukalako miñez.

Biotza daukalarik
naigabez betia,
aurchoari esaten
baitio ¡maitia!
¿zer nai dezu amachok
zuri ematia?
aurrak erantzuten du
¡*Amacho titia!*

Amak entzunik bere
aurraren itz-otsa,
pizkortzen zaio barren
len zeukana otza
orduan azkaturik
chit pozez gorontza,
bularren ordez dio
ematen *¡biotza!*

PEPE ARTOLA

EUSKALDUN ERDALZALEA

Tentela

I

—¡Ai ama! Ezta errez eche artan serbitzen.

—Larricho ziñan ba juan arte.

—Bai; egunaren parterik gueienian bakarrik eta....

—Aingueru guardakoa beti izango dezu zedorrekiñ, zedorrek nai badezu: lagunik onena orisse da. Gañerakoak mesede baño kalte gueiago eguingo dizute, gaztea zaude ta.

—¡Baita zera ere! ¡Zuk ori esatea!

—¿Miñ eman aldizu eguiak? Botikak ere, garratzak izanagatik, artu eguiñ bear izaten dira: eta zuk ere orisse eguiñ bear dezu.

—Ni serbitzera juan mintzan....

—Obeki izateko ustean. Uste zenduan mantal churia jantzi, illiak arro ipiñi, guerria estutu, burua tente, guzia apaindu, kalian beti atzera ta aurrera ederki ibilli, or chuchu ta emen puchu, aizea baño ariñago, ta ill artian bizi. Uste zenduan ori zala serbitzea, baña oraiñ ikasi dezu zer dan.

—Ikasi dedala...

—Bai, eta laster; iru illabetean.

—Gueiago ere egongo nintzan ni...

—¿Nork ekarri zaitu ba?

—«*Betala tu kasa,*» ezan zidan echekoandreak eta...

—Aren aguinduak ondo eguiñ baziñuz, etzizun esango *betelarik*.

—Medikuak ere esan zidan, aizeak artzea on izango nuala.

—Eta ¿ez altzan an bertan aizerik? Len ziñuzanaz gañera, zerbait artu bear izan dezu ba an ere; beñepeiñ arincho zabiltzala iduritzen zait, eta edozeiñ moduz ere, atzera juan zindezke aizeak artutakoan.

—Enintzan ni juan *prezisamente* serbitzen ikasteagatik.

—Ez aleguia, ondo izateagatik baño.

—Ezta orregatik ere.

—¿Zergatik ba?

—Erderaz ikasteagatik.

—¿Eta ikasi dezu?

—Bai; eztaukat lotsarik Erreguiñari itz eguiteko ere.

—Badakit nik, lotsarik eztezuna ezertarako ere. Bestela etziñan etorriko serbitzetik irugarren illabetean; baña erderaz ikasi badezu, ondo guera sekulako.

—Orretara ba ondo nago.

—Ba eztegu ezercho ere palta, sobra andirik izango ezpadegu ere, eta ¡biajon deizula zuri!

II

—Aizazu Pillomena.

—¿Zer nai dezu Mari?

—Guardasola aztu zitzaidan atzo Lukasen echian, eta urasse trenian bialtzeko, eskutitz bat eguiñ nai nikio, eta ¿nola jarriko ote diot.

—Ara nola: *la paragua ke te me has olbidao en de ti kasa, ke se llama baskuentze guardasol, mandamuste kon la tren.*

—Ondo dago orisse nere ustez, argui ta garbi, baña itzcho bat mudatu bearko degu.

—¿Zeiñ itz?

—*Mandamozte* orisse.

—¿Zergatik ba?

—Mando-moztaleen oso gorrotokoa da Lukas guria ta....

—Orduan itz ori kendu ta beste orren antzeko bat jarriko degu.

—Bai; obeko degu.

—*Mandamuste*-ren lekuan jarriko degu *Madamussel* eta orduan esango diogu: *la paragua ke te me has olbidao en de ti kasa. ke se llama baskuentze guardasol, madamussel kon la tren.*

—Ederki dago; denbora guchian, baño ederki ikasi dezu erdera.

—Bai, ala da, baña osasunak lagundu balit, obeki ikasiko nuan.

—Aditu degu bai, medikuaren aguinduz etorri zerala, erriko aizeak artzera.

—Bai *por cuanto*, alasse da; eta.... *bamos*: ala bearrean ere, uste det orainche dala sasoerik onena aizeak artzeko.

—Esango nuke; gaztaña ta baburruna oranche dago ugarien ta....

—Alasse da.

—Probechu on ba, ta agur.

—Ario.

III

Erreguiña baño apaiñago zijoan Pillomena plazara jai-arrasaldean, baña ¡*ai karanba!* abanikua aztu zitzaion echian. ¡Ai ura pena!

Bazan errian Errapel tontoa deitzen zioten mutill erdi-kasket guizajo bat. Erdaldunak deitzen zioten «*El tontuelo*» eta erdalzaleak «Tontolelo.» Disimulo andian esan zion Pillomenak Tontolelori: Zoaz gure echera guizajori, eta ekarri zadazu sukaldeko maiaren gañian dagoan abanikoa eta emango dizut chakur andi bat.

—¿Zer da amanekua? galdetu zion Tontolelok.

—Aize ematekua, erantzun zion Pillomenak.

Juan zan Tontolelo, eta an dator auspo bat eskuetan duala. An dijoa saltaka Pillomenagana.

—¿Zer dakar tonto zar onek? galdetu zuan Pillomenak.

—Amanekua-erantzun zuan Tontolelok-ara aizia-esanaz, eta auspoarekiñ aize emanaz, erri guziaren aurrian, ondo aizaturik eta lotsaturik guelditu zan Pillomena gaisoa. Etzaio gueiago eguiñ gogorik serbitzera juateko, ez eta ere plazara. Esan zuten Tontolelok sendatu zuala, eta berarekiñ bizipidia artzeko asmoan ibilli bear zuala. Beñepeiñ andik aurrerakoan deitzen zioten Pillomena Tontolela, eta azkenean, betiko guelditu zitzaion izena izan zan Tentela.

V

— *¿Abisluste ke lotsagabekeria?* ¿Etzioten bada esan Pillomenari obe zuala deirik eguiñ gabe ezkondu?

—Ori baño ezpada laster eguingo degu deia-esan zuan Tropelek-eta tanborra joaz kalez kale, bota zuan pregoia era onetan:

Eskontzeko asmoa
Bi gaztek dutela
Edo mutill-neska-zar
Guelditu bestela;
Jazteko iñor eman
Nai badie tela,
Bata da Tontolelo
Bestea Tentela.

P. M.

1.903-oko Illbeltzaren 13 an.

ERLIKIDUN ASTOA

Asto bat zamatua
Guztiz erlikiaz
Zijoan iñon ezin
Kabiz fantasiaz,
Zergatik zutenean
Jendeak ikusten
Belauniko ziraden
Bereala jartzen
Eta bide zitzaion
Buru artan jarri
Eguiten ziotela
Belauniko ari;
Argatikan zeraman
Guztiz goratua
Eta aizez betea
Gaissoak burua
Onela ikusirik
Esan zion batek:
—¿Agur oiek iretzat
Dirala uste dek?
¡Ez dek besterik falta
Baizikan astoa
Adoratzea ala
Nola Jaungoikoa!
Makurtu ezak ire
Aizezko burua
Ez dituk agur oiek
Iretzat, kaikua
¿Ez aldakik dijoala
Kucha bat gaiñean
Erlikiaz betea
Ire bizkarrean?
¡Zeinbat asto badira
Guizonen artean!
Arkitzen diranean
Enpleo batean,
Sinistatzen oi dute
Gure kortesiak
Dituztela gugandik
Aiek mereziak
Eta guero galtzean
Beren enpleoak
Guelditzen oi dirade
Len beziñ astoak.

ITURRIAGA.

BI NESKACH MIRABEREN ARTEAN

—Kasso Mari, ¿zer dion?

—Oi, oi, Dolores *bien ¿y tu?*

—¿Aztu altzain euskeraz?

—Eziñ *pronunciatu* diñat *palabra* bat *tan siquiera; en bascuence del todo olbidatu* zaidan.

—¡Ez dizkiñagu aditzeko guziak aditu! ¿Euskeraz aztu?

—*Qué quieres*, pues, *necesidadeak* ez diñ *perdonatzen.*

—¿Erosteak eguin al ditun?

—Bai, ta *en seguida marchatu* bear diñat *aprisa* echera, *para ahora* gure *señora prevenida* zeon *riña* eguiteko.

—¿Zer den bada?

—*Camak* eguiteko zeuzkanat eta *cociñan* are *atenditu* bear; *además carniceruak diez céntimos* kilo araguía *subitu* diñ ta... ¡gure *señora* aiñ den *agarratuba*!

—Neska, aldeguin zan izkuntz orrekiñ nai denan lekura.

—*Oye*, Tolosako mutill *bebedoriak como siempre sidreritik sidreria continuatuko* diten?

—¡Ez uanan ik ere ori esaten aien atzetik ibiltzen itzananian, epur-dantzari arrotzar orrek!

. . . . . .

. . . . . .

Amaika orrelako
gaur dan egunean
arkitutzen dirade
mundu zabalean;
Euskera ukatu ta
erderan naiean,
jaio diralarikan
Euskaldun errian.
Onelako neskachen
bizkarren gaiñean
gogoz ari liteke
makillan lanean.

B.

NEGUKO LORIA

Otzen bildur bagarik
goizetik gau-bera
jantzi zuri bategaz
naz zuen ganera
askok gura es arren
ni beti aurrera
ollo lumak lecherik
jausten naz lurrera.

Ipinten deutzuedaz
landara guztiak
danak arro arrorik
lorakaz jantziak
daukazuez arriturik
bai zeuen beguiak
basterrak ikusirik
zuri ta garbiak.

Baserritarrak dagoz
ni natorrenian
posez beterik beti
euren etze aldian
beguiraturik neure
edertazunian
arto onak artuteko
datorren urtian.

Aberatzak daukadaz
euren etzietan
eskuak igurtziten
kristal artietan
neure beguira dagoz
Jauregui ederretan
otzen bildur bagarik
oingo egunetan,

Beste gustientzat naz
zuri ta arguia
ta bakarrik batentzat
baltz eta itzusia
biarguiñak deust niri
gorroto aundia
keutzen deutsadalako
eguneko oguia.

Negarrez egon barik
oiñ negu luzian
biar zintzo eizue
uda ederrian
bakian biziteko
zeuen etze aldian
mendi puntatik bera
ni natorrenian.

Neure edertasuna
da zoragarria
neure biguntasuna
parerik baguia
neuri deituten deuste
neguko loria
baña naz edur zuri
erruki baguia.

BIARGUIN BAT

GURE ESKUTITZAK

Tolosatik

Batzuen berekiko amorioa eritzeko bildurrarekin, ez nago guztiz gogo onez IBAIZABAL-ek egun guchiz aurretik eman duen gai eder baten gañean eskribatzeko. Albanezake eguin iñor samindu gabe, ez neukake zerzaz bildurtu, baña minkorrak baigueran, argatik nabill orren nai-ezka bezela. Nolanai dala, eguia esango det nere iritzian; ala ez bada, barka nazizute utseguite guziak.

IBAIZABAL-en bi edo iru guei aurrekotan itzeguin da Tolosako apaizengatik, galdetzen duala Jenaro Elizondok, eguia otedan erderaz errezatzen dituztela apaiz oiek errosario santua eta bederatziurrenak. Aditzera det, galdera onen ondoren egun guchira, kontu au bera berritu ziola Jenarok gure Vicario jaunari ezkutitz batian ,baña etziola bialdu garaiz, erantzun zegion IBAIZABAL-en urrengo lenengo gueian: eta, gañera, goiko eskribatzea etzetorrela berdiñ beko ziazku edo firmarekin, etziruditela batek berak eguiñak, baitzik biren arteko komponketa. Ez det esan nai onekin trampian ibilli dala Jenaro, bai ezkutitz eguite modu orrek illunpean utzi gaituala.

Bi egun igaro ziran, ta ez gueiago, ordutik IBAIZABAL-en 53.n gueian aguertu zala Bloa-ren lan guztiz polit bat izendatua *Romanones baiño charragoak*, esanaz «Norbaitek edo norbaitzuk emon bear izango dabela kontu estua, erabaguille guztien Erabaguillearen aurrean... berbaldi edo zermoiak erderaz eguiten badituzte, Elizan entzule guztiak euskaldunak dabezela...»

Nere iritzian, Bloa aurrereguitu da lan ontan, baldiñ Jenaro-ren be-

rririk bazuan, ¿altzekian ba ark gure Vicario jaunak zer erantzungo zuan? Ezbazekian, egokigo zan pizkacho bat ichoguitia. Emendik Jenaro-ri erantzun zion sort-erritar baten esanak eraguiñ-erazi badiote ¡an ori, gueicho ¡latu da. Sort-erritar orrek diozkan gauz guziak ez dira eguiak; ezlezake esan, dion bezela, «gure parrokian sermoi gueienak erderaz eguiten dirala», Jaungoikoaren legueko zortzigarren aguinduakin asarretu gabe: irutatik bat izango dira gueienaz erderazkoak eta oiek dira onela jendearen greska gatik ¡ezbaitira gaurko gure egunak Espiritu Santuaren etorrerako ondorengoak, edozein izkuntzetan sermoiak eguin da guziei adieraztekoak!

Gañerakoan, eguia esan du erro-sarioa eta bederatziurrenak erderaz erretzazen dirala. Bederatziurrenak eguin oi ziran euskeraz, baña guertatzen zan (ala ezan didate) Vicario jaunak errezatu ezin zezakenean beste gauz askori beguiratu bearragatik, urrengo zetorrena eguitera (euskeraz baño erderaz gueiago mintzatzen zana), auntza mendira bezela, erderara etziten zala, eta orregatik beiñ erderaz eguiten zala, da esatia, bederatziurren ark nazka ematen duen azak eta naste bat zirudiela. Asko ichusitzen badu apaiz euskalduna gauzak egiteko modu onelakoak, guchiago edertzen du missioak euskeraz ari diranean eta lautatik iru erderaz oztakiten basarriko jendea eta gañerakoak erritar euskaldunak Eliz betean daudela erderaz errosarioa esatea, dembora guchi onuntz gure parrokian guertatu dan bezela, gogoan daukatenak diotenez. Gure Vicario jaunak, gaiñ gaiñeko euskalzalea izanik, damu du noski, entzun detanez, bere inguruan dauzkan apaizak euskalmaiteak ezdiralako, euzkeraren alde gueiago ezin eguiña. Apaiz oiek lagunduko balioteke beren naguziari euskera zabaltzen, ezluteke maisu biarrik noiz da nola errosarioa eta bederaziurrenak eguin bear diran jakiteko, baña ¡bitartian...! ¿bitartian? Astindu Ibaizabal, astindu euskaldun charrak; ondo zuaz zure lanian. Ez azpertu apaiz minkorrak billatu arren artu dezun bide leguezko ortan; aurrera beti zure pausua, zereganatu arte aundi eta chikiak, zar eta gazteak.

Eskutitz au bukatu baño len, poz bat eman nai dizuet Ibaizabal-tik euskeraren alde lanean zabiltzatenari, batezere nik gauz autan artu zaituzten Bloa eta Jenarori, esanaz ez dala zuen azi guzia lur charrean erori, badirala emen apaiz gazteen artean, zuen dotriña entzun ondoren erderari aldeguiten asi diranak, sermoiak eta meza ondoko avemaria-k euskeraz aurrera eguingo dituztela esan dutenak eta, Vicario jaunari badeizkio, errosario santua ta bederatziurrenak ere.

IZENGORDEA.

1903-garren urteko Ilbeltzaren 12-an.

Errenteritik

Donoztiako gende askoren opa edo deseoa kumplitzeagatik joandan igande arratsaldean kantatn zuen berriz emengo orfeoiak euskerazko opera Pudente.

Zeñen ederki eguiñ zuen zioten lenengo Donostian kantatu zanean parte artu zuten batzuek, zeñak etzi-an aspertzen chalo jotzen. Opera ¡eiena kantatu bear izandu zan bi ldiz.

Gende azko zan inguruko errietakoa eta orfeanistak entzun zituzten makiñabat alabanza, guziak ondo mereziak.

Atzo asi ziran euskeraz orfeonista batek izkribatutako bi lancho polit ikazten datorren illean emengo biltokian eguiteko.

¡Aurrera mutillak! Zuek ikazteko daukazuten gogoarekin eta zuen guiari Anton Olaran-ek erakutsitzezeko daukanarekin ezta zuentzat gauza gaitzik izango eta goitalchatuko dezute gure erri maitea.

Donostiako albiztariak asko aipatu zaituzte laudatuaz dembora berian, eta berdiñ mintzatzen da gende guzia ere.

Jarraitu zazute aurrera era onetan bada obe da orrelako berriak entzutea lapurretak edo eriotzak eguin dituzutela baiño.

ENRIKE ELIZECHEA.

Zarauztik

IBAIZABAL-en artezkari jauna.

Urtero eguberrietan eta ondorengo igande ta jaietan eguiten diran festak igaro ditugu atseguiñez beterik; ala berean opa diotet igarotzea urrengoak *Ibaizabal-i*, bere irakurle ta euskaldun danari. Esan det ala berean, baiñan nola joan dan urtean zerbait oroitu baguera euskaldunak gueren izketa garbi doatsu maiteagaz eta zerbai bizitu bada, urrengo eguberrietan askoz biziago izango dala nago baldin gueron aldetik joan dan urtean bezela saiatzen baguera. Ez etzi, lagunak, eta aurrera jarraitu.

Erreguen egunean emengo lagun talde bat bildurik Jose Mari Iriondo ren ostatuan eguin dute apari merienda bat; ontarako aguindu zuten Elgoibarko Artolaren ostatura bialdu zeitzala bi kazuelakada bakallo atondubak, bata saltza berdean, bestea tomatiakin; aguindu eta bai eguin ere Artolaren ostatuak. Bi kazuelakadak etorri ziran 6-20 tako trenean bero berorik, ¡ai ura usaia, illa piztutrzko langoa! oiekin batera etorri zan zaato edo bota bat ardo, 16 litrokoa, Erriojako *claretaz*.

Jan edan bapo eguin ondoan ¡ango dantzak! Etzan beldurrik nozki kalboa azaltzeko. Esan didate eztakitela ardoak ala tomateak jendeen artean erderaz itzeguiteko gogoa eman zuela.

Bada nik esaten det ori orrela bada lagun talde artan izango dirala erderaz itzeguiteko galguiroa daukatenak, zergatik askotan jan-edan ondo eguin ta guero irtetzen dute barrengo aitormenak. Esan didate urrena orrelako bildu aldia eguiten dutenean jarri bear dutela agindu bat esaten duana, lagun arte onetan erdaraz itzeguiten duenak izango du picher bat ardo multa lenengoan, eta bigarrenean kampora bialdua izango da. ¡Ederki guizonak, asmo ederra da! ala berean eguin bear guenduke gueren itzaldi danetan.

Lengo igandean gure bikario jaunak itzeguin digu pulpitotik nola emen zabaldu diran paper batzuek erlijiosuen kontra eskribituak, ziur nago oiek zabaldu dituztenak eztirala euskaldunak izango, beintzat ez Zarauztarrak ez ere emen bizi diran euskaldunak; izango dira maketoren batzuek, eta nik esaten dizutet eguiaz euskaldun zeratenai eta benetan gure legue ta oiturak maite dituzutenai ez jaramonik eguin paper zikiñ lotsagabe oiek esaten dutenai, eta iñork ematen badizute zatitu bere aurrean. Oiek dira erdaldunak ekarri izan dituzten eta ekarriko dituzten errega-loak gure Errira.

Lengo urtean, erriko zizak eman dituzte 57.317,10 peseta.

Bi itz nai dizkat esan Miguel Uranga jaunari; emen etorririk erdalerritik igaro dituzu eguberri jaiak, urteberri ta erreguenak zere gurasoen alkartasunean, oraiñ bazoaz zere eguinbearretara Madrillko probintzira, baiñan eztezu guelditu nai irakurri gabe IBAIZABAL chikia eta aguindu dezu bialtzeko; ondo da, jauna, eguingo zazu zure naia; lenago ere banekian euskalzalea ziñala ta oraiñ esango det benetan euskalduna zerala, eta Jaungoikoak nai dezala zuk ainbeste maite dezun damachoaren jabe eguiñik alkartasun batean urte askotan bizi eta guero betikotasun guzian zeruan izan gaitezela.

JENARO ELIZONDO.

Illbeltzaren 13 an.

KARIDADEA

(jarraipena)

Bazkaltzeko zai zeuden
senar-emaztiak
t'eskale batek jotzen
dizkate atiak
esanaz: limosna bat
nai nuke maitiak
bada iya illian
naduka gosiak!

Eta limosnachua
zioten ukatu
naiz premi estuakin
aitonak eskatu
bañ' etzuen nai onek
andik aienatu
eta berriz ta berriz
ere zan zaiatu.

Biotz gogorra zuten
eta zan alperrik
limosnikan etzuen
eramango andik
an etzuten entzun nai
beartsuan itzik
arkitzen ziralako
gutiziz (1) beterik.

Emakumeak dio
barrendik ojuka,
¿nai aldek bialtzea
nik ortikan joka?
ta aserre, lurretik
zigor bat artuta
aitona bialtzen du
dena zauritua!...

Zai zeuden eta Jesus
etzan an ageri
eta andriak dio
bere senarrari:
zuaz ermitaraño
ta esan berari
«luzat-etsirik gaude
lenbailen etorri».

Eta gizona joantzan
oso larritua
ta jarririk aurrian
belaunikatua
ikusi zuen Jesus
dena zauritua
bañan etzan guelditu
oso izutua.

«Zuk aguindu dirazu
(dio) gaur goizian
bazkaldutzera joango
zerala egüerdian».
—«Izan naiz ta bialdu
nazute aurrian,
Orra zure andriak
zer zauri egin diran».

Erantzuera ori
zuenian aditu
koloreak ederki
zitzaizkan gorritu
bai ere barrenean
damua sentitu.

Aitonan guertaera
zitzaion oroitu.
Joantzan bere echera
chit aserreturik
baña... etzuen arkitu
auts pillak besterik
bat-batetan echeak
bizi su arturik

ondasunak gelditu
ziran errausturik (1).

. . . . . .
. . . . . .

¡O! zenbat aldiz nere
amona gassuak
magalian artuta
emanik mussuak
(aztuko etzaizkitenak
¡¡aiñ ziran gossuak!!)
kontatutzen zizkiran
orlako ipuichuak!
Esaten ziralarik
«illoba maitia
pobreaz beti, beti
oroitu zaitia
beartzuak jotzian
echeko atia,
lagundu, eman zerbait
alaitu tristia.»
«Ez du Jaunak maitatzen
aberastasuna,
andia urgulloa
ta aunditasuna;
baizikan biotz-bera
ta humiltasuna
eguiazko karidade
eta ontasuna.»
Ta joatean eskale
bat gure echera
Jaunaren izenian
limosna eskatzera
zerbaitekin bialtzen
ninduen atera
muñ egin ta ondoren
berari ematera.
Esañik «illobacho
zuk ori egitian
pox aundia artzen du
Jaunak biotzian
egin karidadea
aldezun guztian
etzaizu damutuko
egunen batian....»
Karidadea izanik
bertuteik onena
ta Jaunan begietan
gauzik ederrena
egin zagun munduan
aldegun gueiena....
gero artuko degu
saria denena

ENRIKE ELIZECHEA.

(1) Gutizia—avaricia.

ASTEKO BARRIAK

Gure Gobernadore Erramon Lili jaunak debekatu ditu Bilboko kafeche batzuetan eguiten zirean *flamenko* musika-aldiak; joan jakoz guero *tocaore*, *cantaore ta bailaore* orrek esatera, bere aguinduak asko galdu erazoten eutsela ta beraz, kentzeko aguindu ori; baiña Gobernadoreak ezeutsen ezer entzun, bota zituan kanpora.

Gueroago beste aguindu bat emon dau jaun onek birau (1) esaleen kontra. Joko-echeen kontra be guertu dago.

Jarraitu orretara, jauna, ta euskaldun zintzoen eta guizon ondradu guztien gogoak zeureganatuko dozuz.

——

Ondarrean ito zireanen familientzako diru-batzea ederto doa Bilbon.

Centro Vasco-an doaz gau arte babatuta 6.500 peseta inguru; *Noticiero*-an 8.000 inguru; Salaberri-ren arateguian 500 da gueiago; *Gaceta del Norte*-n 1.500 inguru; *Nervion*-en 167 peseta.

Ganera Bizkaiko Diputaziñoak bialdu eidauz 14.000 peseta; Bitoriatik be 2.000 peseta inguru etorriko dira; Guipuzkoako Diputaziñoak be lagundu dan ondo.

Ederto derichogu; illikoen bizitzea

(1) Errautsa—ceniza.

(1) Biraua da Jainkoaren kontrako berba zikiña.

ezin eskuratu leie guizonak; onen eskuan dago bakarrik, laguntasunaz illikoen echekoai al dan moduan negar-anpuluak zelanbait legortutea, ta ori lortuko da.

Biotzean daukagun gauza bat ezin guiñaike ichi esan barik. Ondarroako guizajoak galdu zirean egun atan, Deba-ko ontzi bat galdu zan lau guizonegaz, *Arantza* derichona. Lau guizon orren familiakaz eztakigu iñor gogoratu danik; beintzat eztogu ezer ikusten gauza orren ganean Bilboko albistarietan. ¿Eztaukee laguntasunaren premiñarik ala?

Chikiak gara ta gure deia chikia izango da; baiña alan da guzti be, esaten deutsagu gueure ezagun guztiai eztaitezela aztu Deba-ko alargun eta umezurtzakaz.

Bermeotik artu dogu eskutitz bat *Akulu bi*-k bialduta. Bera ipinteko lekurik eta astirik eztaukagu aste onetan. Datorren astean eskutitz orren zerbait arguitaratuko dogu; bada daukazan gauza batzuk, beti dira esatekoak, aste bete aurrerago edo atzerago izan arren.

DAMA GAZTE BATI

Dama gazte bat aurkitu neban
Guernikakoa alabaz,
ak esan eustan an oindik eguala
aitagaz eta amagaz,
baiña pozago gaurtik aurrera
ongo litzakela neugaz;
¡ai zeiñ dontzeilla polita dagon
oguei eta bat urtegaz
amodiozko bizimodua
eroan leike aregaz!

Ni asi nitzan zerbait esaten
euskaldun baten antzien,
bakarrik nao ta etorria naz
zu neure lagun artzien;
jakingo dozu euskaldunari
zer kalte eguin eutsien,
euskaldun danok gueratu guiñan
forurik baga utsien,
guk ezteutsagu ichi bearko
euskereari galtzien.

Dama gazteak erantzun eustan bai amodioz beterik:

Neure laguntzat nik eztot gura
zeu izan ezik besterik
baiña eztaukat erdereari
lagunduteko usterik,
sekulan bere echat gustatu
neuri erdera nasterik,
eneuke gura erderearen
fabore iñor asterik.

Dama orregaz ainbesteraiño
konfiantzia arturik
nik esan neutsan: biziko gara
biok arkalaz baturik,
neure berbea aditutzeko
etzaitez egon gorturik,
Euskalerrian topau ezkero
gueure gustoko orturik
anche oderto asiko dogu
izan ezkero fruturik.

Ainbesteraiño gure euskera maitaten dozun ezkero,
zu bagarik ni enintzateke
beinzat biziko luzaro,
amorez neugaz alkartutzera
maniau zaitez aguro
mundu onetan bizitza on bat
al baleikegu igaro,
ezbai bagarik izango gara
zeru goitsuetan guero.

Dama gaztea nik bear deutsut
orainche zerbait azaldu
euskaldun garbi eguiazkoak
izatea nai neuke gu,
IBAIZABAL-ek ainbeste paper
beti eguiten dau saldu
belarrimochak eiteagaitik
gure artetik bialdu;
orrissegaitik IBAIZABAL-ek
nai dau euskera zabaldu.

MANUEL ENBEITA.

IZKIRIMIRIAK

Lengo urte baten kanpotar guizon andi bat etorri zan Guipuzkoara, udako bero-egunak gure menditarteko erri baten igaroteko asmoan.

Erri guztikoak jakin eben laster kampotar ori guizon arguitsua zana, paper albistarietan irakurrita batzuk, entzunda beste enparauak.

Jai-egun baten badago eliz-atarian guizon aldra andi bat, eta kanpotarra elizara sartzen ikusten dabeenean asten dira bere gaiñean itz eguiten.

Jakintsua zala ta jakintsua zala entzutean, badiño aldrako guizon baserritar batek:

—Ezta bada guizon ori aiñ jakintsua ta guchiago ere.

—¿Nola ez ba?

—¿Nola? Erri onetan denok dakigu non dagoan Errekacho deitzon basechea, eta orrek etzakik; neronek erakutsi bear izan nion lengoan.

D. A.

Izkirimiri au Españian guertatu zan lengo urte baten, autaldi edo eleziño aurrean; onen antzekoak gaurtik laster guertatuko dira barriro be.

Diputadu izan nai ebanak, bere autalari edo *electore*-en gogoa eskuratutzeko, itzaldi bat bota eutsen esanaz *zubi barri bat* eguingo eutsela berak; erantzun eutsen ezegoala erri atan errekarik (erreka bagako erri asko dagoz Españian), eta diputadugueiak ben ben edo serio serio esan eban:

—¿Eztagoala? ¡Ekarri eguingo da, zubia ereguiteko!

IGARKIZUNAK

I

Bata bia letrea
Ta bardin *irua;*
Nire dana izan oi da
Praka bagakua.

ZIGARROZALEA.

II

Zu ma rra
Za

PELLO AGUIRRE.

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Arriola;* bigarrena *Guerriko miña.*

Bigarrena bialdu dau L. Oya,—k; lenengoa Pello Aguirrek onetara:

¿Esango aldirazu
eguia, Artola?
Zure igarkizuna
¿ez da Arriola?

LA EDITORIAL VIZCAINA derichon moldaguintzan
Gran Via, 26 eta Ledesma, 15.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería) 19

AJUN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.n » . . . . . » 0,20 »
4.n » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak